

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Eguaztena / 2002ko uztailaren 24a / 506. zenbakia

**bagoaz  
oporretara!**

**irailera arte!  
aguuur!**

**ondo ibili!**

**TURISMO BULEGOA: EKAINETIK HONA, 745 KONTSULTA/7 • KIROLAK: GORE, IPINTZAKO TXAPELDUN/9**



BILTOKI bere bezero guztiei  
**OPOR ZORIONTSUAK**  
opa dizkie eta, bide batez, jakinarazi nahi die  
**ABUZTUAN OPORRENGATIK ITXITA**  
egongo dela.

Konponketak egiteko zerbitzu ofizialen telefonoak hauek dira:

**Elektragailuak:**

|                 |                             |
|-----------------|-----------------------------|
| Otsein-Candy:   | 943 19 29 23 - 902 10 01 50 |
| Fagor-Aspes:    | 943 79 22 34 - 79 89 97     |
| Aeg:            | 943 46 01 11                |
| Corbero:        | 943 45 55 64                |
| Zanussi:        | 943 45 81 06                |
| Miele:          | 943 21 65 13                |
| Whirpool:       | 902 23 44 32                |
| Liebherr:       | 944 45 55 64 - 45 36 04     |
| Bosch eta Balay | 943 70 26 97                |

**DEKORAZIOA-ALTZARIAK**

San Martin plaza 1.  
Tel. eta faxa: 943 76 43 51

**SUKALDEKO ALTZARIAK**

San Pedro plaza z/g.  
Tel. eta faxa: 943 76 34 00

**TB, BIDEOA, HI-FI SOINUA**

Barrenkalea 6.  
Tel. eta faxa: 943 76 25 96

**Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia**



**HORMA-  
ARMAIRU  
AUKERA  
ZABALA**

Eta mota  
guztietako  
ateak.  
Informa zaitez!



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE  
AROSZTEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 01 24


**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka, 4 beheha.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



## ATREBENTZIAEZPADA/ Ze da oporretatik gehixen gustatzen jatzuna?




**JAVIER UNAMUNO**  
57 urte



**ANGEL PEÑALBA**  
46 urte



**IZASKUN BIKUÑA**  
35 urte



**ALAITZ MENOR**  
13 urte



**JESUSA MUXIKA**  
73 urte



**KARMEN ESCRIBANO**  
52 urte

Trankil egotia. Horretxegatik, herrixan geratzia gustatzen jat. Taberna gehixenak-eta itxi egitten dittue, baiña aukera ederrak dare mendixan ibiltzêko-eta. Hondartzia be gertu dago.

Oporretan gehixen gustatzen jatena da eguneroko ardurak albo batera lagatzia. Oin, oporretan nago, eta hamar egun emon dittugu kanpuan, eta irratirik be ez dot entzun.

Lanera ez jutia. Eta deskantsatzia be bai, hondartzara edo igerilekura jutia... Aurten, hemen geratuko gara, eta eguraldi ona egitten badau, horixe egingodogu.

Gehixen gustatzen jatena da eskolara ez jutia. Eta horrez aparte, lagunekin jutia kanpora eta ondo pasatzia, beti gurasuekin jun biharrian. Aurten, mendira noia kuadrillakuekin.

Itsasuan baiñatzia. Aurten ez dau oso eguraldi onik egin, baiña abuztuan hemen geratuko garenez, eguraldi ona egitten dabonetan hondartzara jungo gara.

Lasai egotia, leku lasai baten egotia. Urbasa azpiko herri txiki batera juten naiz. Ez dago dendarik eta hantxe egoten naiz, trankil. Gaiñera, irakurtzia eta mendixa asko gustatzen jat.

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ZORUA KONPONTZEKO BEHARRA** Zubiaurre kaleko bizilagun batek hots egin du, oinezkoen bidea oso egoera kaskarrean dagoela salatzeke asmoz. Egunen baten norbaitek min hartzeko moduan dagoela dio. Haren esanetan, Udalak ez die tratamendu bera ematen erdialdeko eta periferiako auzoei. Eurena, behintzat, guztiz utzita dagoela adierazi du. /M.B.

## ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /6

### Oholtza berria bilkura aretoan

Udala bilkura areto oholtza eta zinegotzien mahaiak aldatzekotan da. Megafonia ere berrituko dute.

ASTEKO BERRIAK /7

### Turismo Bulegoa

Ekainaren 1etik uztailearen 15era 745 kontsulta jaso dituzte. Irailaren 30era arte zabalik egongo da.

KULTURA /10

### Jazza amaitu eta filmak hasi

Egubakoitzean, azkeneko jazz saioa izango da Espoioian. Hilaren 1ean, film emanaldia hasiko da.

## ASTEKO DATUA

# 5

### ABUZTUAN IZANGO DIREN FILM EMANALDIK

Udako gauak egitarauaren barruan, bost film emanaldi egingo dituzte abuztuko eguenetan, 22:00etan. San Martin plazan izango dira, eta, jendea eroso egoteko, aulkiak jarriko dituzte.

## BESTEKE SANA

Idiaketaz eta Loren joan ondoren, Realaren aldageletan ez dago taldeko kapitaina izateko agintehaina duenik. Aldageletan zuten jarreragatik jokalaririk garrantzitsuenak ziren. Orain, ezaugarri horiek dituen jokalaria falta da. Baina bada kapitain izateko prest dagoenik, eta ez dut uste arazorik egongo denik. Ez dago gizon egoki edo trebatuak dagoenik, oraingo taldearen izaera kontuan hartuta. Baina ardura hiru edo lau jokalariren artean banatu daiteke eta ez da arazorik egongo. (...)

Erabakia hartzea klub-ari dagokio, eurak baloratuko dituzte gauzak. Taldeak ere ikusi behar du zein jokalaririk iruditzen zaion egokia postu horretarako, eta Liga hasteko geratzen den denboran konponduko da.

AGUSTÍN ARANTZABAL  
'El Diario Vasco'/02-07-19

## BERAIEK DIÑO E/ Andres Osa 'Sakona'



### Barriola pilotaria

Hiru txapelen jabe denbora gutxian. Mutil gaztea. Leitzarra. "Nik pilotan disfrutatu egin nahi dut" esaten du. Txapelak ez dio burua arintzen. Ospeak ez du erotzen. Hitzak neurtuak eta egokiak. Euskaraz bikain. Denbora gutxian jarraitzaile anitz egin ditu. Pilotari seriotasuna eman dio, ez berak bakarrik baina bereziki leitzarra izan da nolabaiteko zentzuna ezarri duena pilota munduan.

Barriolak ez du tontokeriarik egiten jende aurrean. Ez du aulkirik ostikatzen, ez du aldagelatako aterik apurtzen edo danbaka astintzen. Ez du pilota harrika jaurtitzen behar ez denean. Ez du keinu itsusirik egiten. Pilotalekuan ibili txukun, estilo ederrean, dotoreziaz, alferrikako protestak eta biraoak ez dira bere ohiko zerbait. Hitz batez eredu paregabea. Ikusteak gustua ematen du.

Milaka gaztetxo Barriolari begira daudela jakiteke ere poza ematen digu, eredu garria izanik hezitzailea bihurtzen delako horrelako pilotaria. Zer ikusi hura ikasi. Barriolaren irudia jatortasunaren islada da. Bere mugimenduak, pilotari emateko moduak, ibiltzeko erak, portaera, guzti guztia eredu garria bada mesede galanta egiten dio pilotari eta bereziki pilotari izan nahi duten gazteei.

Kontrako ereduak ere ikusten dira. Tamalez txistuen ordeztuak merezi gabeko txaloak jasotzen dituzte ikusleen eta hedabideen aldetik. Pilotaren munduan show negargarriak ikusi nahi dituztenak gero eta gehiago dira. Jarrera lotsagabeak grazia izango balu bezala txalotzen duten zaletuak ugaritzen ari dira pilotan. Bien bitartean epaileei arautegia ahaztu egin zaiela dirudi. Esker mila Abel Barriola, hezitzaile bihurtu zara-eta.

**"Abel Barriolak ez du tontokeriarik egiten jende aurrean. Ez du aulkirik ostikatzen..."**

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA  
Edu Mendibil  
ERREDAKZIOA  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
MAKETAZIOA  
Iñaki Iturbe

PUBLIZITATEA  
Mireia Larrañaga  
KOLABORATZAILEAK  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA  
55-50/91  
ISSN  
1130-6599  
TIRADA  
5.900 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

**EGUENA, 25**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**EGUBAKOITZA, 26**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

**ZAPATUA, 27**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**DOMEKA, 28**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**ASTELEHENA, 29**  
ESTELLA. Matxiategi 5. .... 943 76 19 63

**MARTITZENA, 30**  
MOZOS. San Pedro 4. .... 943 76 12 15

**EGUAZTENA, 31**  
CAMACHO. Oxirondo 4. .... 943 76 11 74

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIK**  
Anbulatorioa (txanda) .... 943 76 24 40  
Bergarako udaltzaingoa .... 943 77 91 06  
Antzuolako udaltzaingoa .... 943 76 62 46  
Ertzaintza .... 943 76 53 40  
Osasun etxea .... 943 76 24 40  
Asepeyo .... 943 76 16 43  
Pakea .... 943 76 13 49  
Angiozarko medikua .... 943 78 90 27  
Antzuolako medikua .... 943 76 62 23  
Odol emailleak .... 943 76 16 24  
Alkoholiko Anonimoak .... 943 76 51 06

**GARRAIOAK**  
Taxiak .... 943 76 19 50

**UDALA**  
Bergarako Udaletxea .... 943 77 91 00  
Antzuolako Udaletxea .... 943 76 62 46  
Udal Artxiboa .... 943 77 91 32  
Igerilekuak .... 943 76 20 51  
Kultura etxea .... 943 77 91 58  
Liburutegia .... 943 77 91 62  
Kiroldegia .... 943 76 56 41  
Mizpirualde egoitza .... 943 76 13 68

**BESTELAKOAK**  
Epaitegia .... 943 76 14 92  
Erregistroa .... 943 76 13 15  
Jardun .... 943 76 36 61  
Idolaz .... 943 76 65 08  
Erretiratuen etxea. Bergara .... 943 76 21 40  
Antzuolako erretiratuen elk. .... 943 76 62 71  
Postetxea .... 943 76 26 85  
Bedelkar .... 943 76 04 68  
Akulu AEK .... 943 76 05 18  
Udal Euskaltegia .... 943 76 44 53  
Bergarako notariotza .... 943 76 10 73

**MEZAK**

|                                |                                |
|--------------------------------|--------------------------------|
| <b>San Pedro</b>               | <b>San Lorenzo</b>             |
| Domekak:                       | Zapatuak:                      |
| 09:30, 12:30.                  | 20:00.                         |
| Zapatuak eta lanegunak: 19:00. | <b>Angiozar</b>                |
| <b>Sierbak</b>                 | Domekak:                       |
| Lanegunak: 19:30.              | 11:30.                         |
| <b>Osintxu</b>                 | <b>Moja</b>                    |
| Domekak: 12:30.                | <b>Zaharrak</b>                |
| Zapatuak: 19:00.               | Lanegunak: 9:00.               |
| <b>Elosu</b>                   | Zapatuak: 11:00.               |
| Domekak: 10:30.                | <b>Mizpirualde</b>             |
| <b>Ubera</b>                   | Lanegunak: 11:45.              |
| Domekak:                       | Zapatuak: 17:30.               |
| 10:30.                         | <b>Antzuola</b>                |
| <b>San Juan</b>                | Domekak:                       |
| Domekak: 11:00.                | 09:00, 11:30.                  |
| <b>Elorregi</b>                | Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Domekak: 10:30.                | <b>Uzarraga</b>                |
| <b>Labegaraieta</b>            | Domekak: 10:00.                |
| Domekak: 11:00.                |                                |

**URTE-MEZAK**

**Santa Marina**  
Hileko 2. astean, domekan, 11:30ean.

**San Pedro**  
Hileko 3. astean, domekan, 12:30ean.

**OHARRAK**

**BERGARA KIROL ELKARTEAREN URREZKO EZTEIAK**

Bergara KEko jokalaria eta kolaboratzaile izan direnen bazkaria izango da irailaren 22an, Lasa jatetxean, elkartearen urrezko ezteiak ospatzeko. Interesatuak Kutxan edo Euskadiko Kutxan irekitako kontuetan egin dezakete izenematea uztailaren 31 baino lehen, 45 euro ordainduta.

**1948AN JAIOTAKOAK**

1948an jaiotakoaren afaria irailaren 28an Txuringo jatetxean. Autobus zerbitzua ere egongo da hara joateko. Izenematea, Euskadiko Kutxan zabaldu-tako kontuan (41 euro).

**IGERI ELKARTEKO ZOZKETA**

Bergara Igeri Elkarteak egindako zozketan 9.083 zerbakia izan da saritua. Begoña Azkargortak eskuratu du saria.

**IMPRECIKOEN ARGAZKIAK**

Impreciko langile ohiek Zabala jatetxean egin zuten afariko argazkiak Zubieta 38ko Arantza dendan jaso daitezke. Argazkiak doan eskuratu ahal izango dira.

**ABUZTUKO ODOL ATERATZEAK**

Abuztuko odol ateratzeak hilaren 7an eta 21ean izango dira, Seminarioko lokalean, 18:30ean.

**JARDUNENAGENDA**

**JARDUN ELKARTEAK BEGIRALEAK BEHAR DITU**  
Jardunek 2002-03 ikasturtean aisialdi proiektuak aurrera eramateko begiraleak behar ditu. Interesatuak curriculum bidal dezakete 103 posta-kutxatilara. Argibide gehiago, Jardunek Errotalden duen bulegoan edo 943 76 08 19 eta 943 76 36 61 zenbakietan.

**URBANOENORDUTEGIA**


**San Lorenzo / San Juandik irteerak**  
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.  
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak**  
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.  
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolola (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

**ORAINDELA 10URTEBERRIGARAN**

**Bergarako igerilarien denboraldi biribila**

Igeri Elkarteak Gipuzkoako Txapelketan taldekako 3. postua lortu zuen eta Euskadikoan, 6.a. Horrez gainera, Unai Alberdik, Juan de Borjak eta Gorka Gonzálezek urrezko domina bana lortu zuten gazte mailako Espainiako Txapelketan, Albaceten. Eta taldeka 7. gelditu ziren.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Infarnuko txerrena"*

Deabrua.  
Txerren soilik ere bai  
-Infarnuko txerrena baiño okerraua da gure mutiko ori.  
-Infarnuko txerrena baiño beltzaua.



GORKA ORTEGA

**ASTEKOFILMAK**

**'EL CUARTO ÁNGEL'**

ZUZENDARIA: JOHN IRVIN. AKTOREAK: JEREMY IRONS, FOREST WHITAKER.

**HARIA.** Jack Elgin kazetaria eta haren familia Indiara doaz. Hegazkina terrorista serbiar batzuek bahituko dute, eta Jack-en emaztea eta alaba hil egingo dituzte. Kazetariak justizia bere esku hartuko du...

**TOKIA ETA ORDUA.** Novedadesen. Eguenean, 17:00, 19:30, 22:30ean; egubakoitzean. 22:30an; zapatuan, 22:30ean; eta domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean.

PUNUAZIOA: ● ● ● ● ●



**Zuri Beltz margoak**

Barnealde eta kanpoaldean erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60  
607 447 494  
943 76 59 59

Bergara

**OGIZUN**

koop. elk. okindegia

San Pedro 21  
BERGARA  
943 76 20 49

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

**HAUGIROA!**

**MINIMOA**  
Eguena, 18 **10 °C**

**MAXIMOA**  
Egubakoitza, 19 **36 °C**

**ASTEKO EURIA (l/m²)** **0,2 L**

|                 | Max.  | Min.  | Euria    |
|-----------------|-------|-------|----------|
| Eguaztena, 17   | 27 °C | 12 °C | - l/m²   |
| Eguena, 18      | 33 °C | 10 °C | - l/m²   |
| Egubakoitza, 19 | 36 °C | 14 °C | - l/m²   |
| Zapatua, 20     | 34 °C | 13 °C | 0,2 l/m² |
| Domeka, 21      | 28 °C | 18 °C | - l/m²   |


San Juan auzoan jasotako datuak

Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



## Guipuzcoana Euro Express: Nazio eta Europa mailako paketeria garraioa

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

 **GUIPUZCOANA**  
**EURO EXPRESS**

**OPORRAK/** Hurrean, Benidorm eta Kanariar Uharteak ere jende ugari aukeratu ditu. Estatutik kanpo, berriz, Costa Rica

# Salou, Cadiz eta Tunisia, aurtengo udako oporrak igarotzeko leku aukeratuena

MONIKA BELASTEGI

Oporrak bertatik bertara ditugu. Datorren astean, abuztuan sartuko gara, eta herritar ugari kanpora joango dira egun batzuk igarotzera. Herriko bidaia agentzietan galdetuta, leku eguzkitsuak aukeratzeko ei ditugu bergararrok oporrak igarotzeko.


Oso urruti joan gabe estatuan barrena bidaiatzea gustuko dutenen artean, bi dira, batez ere, bergararren lehentasunak: Mediterraneoko kostaldea eta Andaluziakoa. Lehenengoan Salou da aukeratuena, eta bigarrean, Cadiz. Gainera, kontsultatutako herriko bidaia agentziek esan digutene, Cadizek gorakada handia izan du aurtengoan. Aipatutako herrien atzetik, Benidorm, Kanariar Uharteak eta Balearrak datoz.

Estatutik kanpoko opor bidaien kasuan, Afrikako iparraldean da aurtengo tokirik aukeratuena, Tunisia, hain justu ere. Eta neurri apalagoan baldin bada ere, Egiptorako eskaera nahikotxo izan dute agentziek. Horien atzetik, beste hainbat herrialde dauden arren, Turkia eta Costa Rica aipatu dituzte batez ere, eta Costa Rica bereziki, euren esanetan modan dagoen herrialdea da-eta.

## ASTEBETE EDO HAMABOST EGUN

Oporretan joateko datarik ohikoak uztailaren erdialdetik abuztuaren amaiera arte izaten dira. Dena den, herritar kopuru handiena abuztuan joaten da kanpora, bidaia agentzietako arduradunen arabera.

Egonaldiak ez ei dira oso luzeak izaten; normalean aste beteko egonaldiak izaten dira, eta neurri apalagoan bada ere, hama-



Salou eta Benidorm (irudian) dira oporrak pasatzeko herritarrek nahiago dituzten Mediterraneoko herriak.

*Egonaldiak ez ei dira oso luzeak izaten; normalean, astebetekoak izaten dira*

bost egunekoak ere bai. Horrez gain, egoitzari dagokionez, bikotearekin joanez gero, hotelean egotea nahiago izaten dugu bergararrok. Aldiz, familiarekin baldin bada edota koadrilan, apartamentuan.

*Bikotearekin joanda hotela da egoitza aukeratuena; familiarekin, berriz, apartamentua*

## AZKENEKO MOMENTUAN

Denetarik dagoen arren, orokorrean nahiko berandu ibiltzen gara oporrak antolatzeko orduan. Aurtengoan, gainera, turismoak behera egin duelako mezua zabaldu dute medioek, eta horren ondorioz, jende ugari hurbiltzen ari da egunotan agentzietara pagotzen bila. Hala ere, agentzietako arduradunen esanetan ez ei dago pagotzarik. Atzerriko turismoak apur bat behera egin duen arren, hegaldi gehienak hartuta daudelako.

*Orokorrean, azkeneko momentuan antolatzen ditugu opor bidaiak*

Udal Pilotalekuko taberna esleitzeko baldintzak, kalean

## LABUR

### Gobernuz kanpoko erakundeendako dirulaguntzak

Gobernuz kanpoko erakundeendako dirulaguntza banatu ditu Udalak, bai lankidetzarako proiektuak lantzen dituzten erakundeendako, bai eta sentsibilizazio proiektuak jorratzen dituztenendako ere. Lankidetzarako proiektuei dagokionez, 52.626,30 eurotako laguntza banatu du, eta lau GKEk jasoko dute. Honako hauek, hain justu ere: Oscar Romero Solidaritza Batzordeak 15.493,41 euro; Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak 13.522,78 euro; FISC Euskal Herriak 17.364,73 euro, eta Medicus Mundik 6.245,38 euro.

Sentsibilizazio proiektuei dagokionez, 3.453,04 euro banatu ditu Udalak, eta gobernuz kanpoko bi erakunde jaso dute laguntza hori: Komite Internazionalistak elkarteak 1.803,04 euro, eta Mugen Gaienetik erakundeak 1.650 euro.

### Ur Kontsorzioak astelehenean irekiko du bulegoa

Masterreka kaleko 16an irekiko du, eta bulegoaren funtzioa da ur zerbitzuarekin harremana duen edozein tramitazio egitea: altak, bajak, titulazio aldaketak, helbideratze aldaketak, matxurak jakinaraztea... Astelehenean egubakoitzera egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara, eta aurtengo abuztuan ere irekiko da egongo da. Bulegoaz gain, 24 orduko telefono zerbitzua ere izango da: 902 30 22 22, hain justu ere. Telefono horrek bulegoak eskainiko duen zerbitzu bera emango du. Eta edozein arrazoiengatik bulego gora hurbildu ezin direnendako pentsatuta dago.


### Osoko bilkura aretoko oholta aldatuko du Udalak

Bilkuren aretoko oholta eta zinegotzien mahaiak aldatzekotan ari da Udala; baita megafonia sistema berria jarrezkotan ere. Oholta, zaharra izateaz gain, ez dator bat bilkuren aretoaren itxurarekin. Megafoniari dagokionez, egoera kaskarrean dago eta aldatzea komeni da. Oholta berria egonkorra izango da, eta megafonia berriaz gain, zinegotzien mahaiak telefono eta ordenagailuendako hartunea izango dute.

Udal Pilotalekuari erantsitako tabernaren alokairua esleitzeko baldintzen plegua onartu du Gobernu Batzordeak. Interesatuek Udalean eskura ditzakete tabernaz arduratzeko baldintzak.

### Abuztuan ere odol ateratzeak egingo dituzte

Odol Emailen Elkarteak adituzera eman du abuztuaren 7an eta 21ean odol ateratzeak egingo dituztela. Ohi bezala, Seminarioko egoitzan izango dira odol ateratzeak, 18:30ean.





Ekainean 10 bisitaldi gidatu egin dituzte eta horietan 222 lagunek hartu zuten parte.

ARTXIBOA

**TURISMOA/** Uztailean Euskal Herriko jendea izan da, batez ere, bisitari herrian

## Hilabete eta erdian 745 kontsulta Turismo Bulegoan

MONIKA BELASTEGI

Turista ugari hurbildu da Bergarara azken hilabete eta erdian. Ekainean 1ean ireki zuten Turismo Bulegoa eta joan den astera arteko datuen arabera, 745 kontsulta jaso dira: ekainean, 527, eta uztailaren 15a arte, 218. Eta 15 bisitaldi gidatu egin dituzte.

Ekaineko hilabeteari dagokionez, Euskal Herri barruko bisitarien kontsultak jaso dituzte, batez ere Turismo Bulegoan; 298, hain justu ere. Bergararrak ere hurbildu dira Turismo Bulegora, eta 165 kontsulta egin dituzte. Horrez gain, Espainiatik etorritako turistak 42 kontsulta jaso dira, Europakoak 16 eta Amerikakoak 6.

Ekainean egindako bisitaldi gidatuen kasuan, 10 bisita egin dira eta horietan 222 lagunek hartu dute parte; batez beste 22 lagun

bisita gidatuko. Bulegoko arduradunen esanetan, kopuru horren arrazoia da, aurrez egindako *mailing* zabalak. *Mailing* horretan seihun bat elkarterengana jo dute -batez ere erretiratuen elkarreetara eta guraso elkarreetara- Bergarako Turismo Bulegoaren berri emateko eta bisitaldi gidatuen berri emateko ere bai.

### UZTAILEAN KANPOTAR GEHIAGO

Uztailari dagokionez, oporraldia inguratzen ari dela-eta, Euskal Herriko kanpotar bisitarien kopuruak gora egin du. Euskal Herri-

ko hainbat tokitatik etorritako 56 kontsulta jaso dituzte, eta Bergararak egindakoak, 64 izan dira. Espainiatik etorritako turistak, berriz, 50 kontsulta jaso dituzte, Europakoak 35 eta Amerikakoak 13.

Bisitaldi gidatuetan ere nabaritu da ekainean bisitariak taldeka etortzen ziren bezala, uztailean bikoteka zein familian etortzen direla -ohiko turismoa dei dezakeguna-: 5 bisitaldi gidatu egin dira, eta bisitaldi horietan 13 lagunek hartu dute parte.

### AZAROAN ETA ABENDUAN ZABALDUKOTU DUTE BERRIZ TURISMO BULEGOA

Aurten irailaren azkenera arte egongo da zabalik Turismo Bulegoa; udako denboraldi amaierarekin batera itxi egongo dute. Hala eta guztiz ere, azaroan eta abenduan zabaldu egongo dute berriz. Azaroaren 1, 2 eta 3an eta abenduaren 6, 7 eta 8an, hain justu ere.

*Ekainean 527 kontsulta jaso dira eta uztailako lehen hamabostaldian, berriz, 218*

## Zabaletamendiko, Osintxuko eta Uberako jaiak abuztuan

MONIKA BELASTEGI


Abuztuan barrena jaiak ospatuko dituzte herriko hiru auzotan. Osintxun Kofraixak ospatuko dituzte abuztuaren 30etik irailaren 1era arte. Abuztuaren 30ean, hasiko dira jaiak. 18:00etan ohiko moztortutako bizikleta mar-txa izango da; 20:00etan Real Santa Cecilia mariachiekin txikiteoa eta ondoren, herri afaria pilotalekuan. Afarirako txartelak Euskalduna eta Txuringo tabernetan jarriko dituzte salgai. Afari ostean, mariachiek emanaldia egingo dute. Abuztuaren 2an, uimeendako jolasak egongo dira 12:00etan, eta 17:30ean, herri ki-ro-

len txapelketa. Gauean, berriz, rock kontzertua izango da, eta 06:00etan, salda banatuko dute.

Irailaren lehen amaituko dira jaiak. 12:00etan meza nagusia egongo da, eta 13:30ean bertso saioa Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Maialen Lujanbiorekin. 17:00etan pilota partiduak egongo dira eta 20:00etatik aurrera Arno taldearekin dantzaldia.

### ZABALETAMENDI ETA UBERA

Angiozarko Zabaletamendi auzoan abuztuaren 23tik 25era ospatuko dituzte jaiak. Uberan, berriz, irailaren lehen, eta meza, bola jokoa, trikitilariak eta auzo bazkaria egongo dira.



Osintxuko Kofraixak abuztuaren 30ean hasiko dira eta irailaren 1ean bukatu.

ARTXIBOA


## LABUR

### Minusbaliatuendako oporretarako programa jarri du martxan COCEMFEK

Beste urteetan bezala, COCEMFEK -Espainiako Minusbaliatuen Estatuko Koordinadoraren Konfederazioa- minusbaliatuendako "Oporretarako Programa" jarri du martxan. Batez ere, %50eko minusbaliatasuna dutenei dago zuzenduta. Bidaletako irteera Madriletik izango da. Informazio gehiago, Udaleko Ongizate Zerbitzuan.

### Gazte Informazio Bulegoa itxita egongo da abuztuaren 12tik 25era bitartean

Gazte Informazio Bulegoa itxita egongo da bi astez, abuztuaren 12tik 25era, hain justu. Lehenengo bi asteak eta azkenekoa zabalik egongo da. Honako egun hauetan, hain justu: lehen astean, abuztuaren lehen eta 2an; bigarren astean 7an, 8an eta 9an, eta azkenekoan 28an, 29an eta 30ean. Ordutegia 09:30etik 13:30era izango da.



**Ur-bide**  
ITURGINTZA

Zubieta, 28-behea. BERGARA. 943 76 00 57. 630 261 617


BERGARAN  
BULEGO BERRIA



BERGARA  
Ibargarai 3.  
943 76 97 97

LEGAZPI  
Santikutz 8.  
943 73 05 25

10 URTEKO  
ESPERIENTZIA!



**IRURAK MARGOAK**  
DISEINUA, S.L.


Era guztietako lanak Paper pintatuak  
Moketa eta sintasola Harea zorrotada  
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32

## SANTA MARINA EGUNA OSPATU ZUTEN

**J**oan den astean ospatu zituzten Santa Marinako jaiak. Eguaztenean (hilak 17) hasi ziren jaiak, etxafuegoekin eta kanpai hotsarekin. Uztailaren 18an, Santa Marina egunean, erretiratuendako ibilaldi neurtua izan zen. Arratsaldean, berriz, meza izan zuten Santa Marinaran; udal korporazioak (argazkian) parte hartu zuen mezan. Horren ondoren, Aritzeta Abesbatzak emanaldia egin zuen. Egubakoitzean ere izan ziren hainbat ospakizun: San Joxepen hainbat kirol ekitaldi izan zen, baita txirrindulari lasterketa ere zapatuan. Domekan, azkenik, Bandaren emanaldia izan genuen, frontoian.



## HOGEI URTEREN BURUAN, LORATU DA AGABEA

**M**atxiategiko etxeetako lorategian bi agabe daude. Orain dela hogeit bat urte landatu zituzten zuhaixka horiek; bi agabeetako bat oraintxe loratu da lehen aldiz. Izan ere, landatu eta hogeit bat urtera ematen dituzte loreak. Loreak eman eta gutxira, berriz, hil egiten da landarea. Berez agabe izena duten arren, pita ere esaten zaio zuhaixka horri, agabearen zuntzarekin egiten delako arrantzarako erabiltzen den pita.

## EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,  
koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



Urteaga 9  
BERGARA  
Tf. 943 76 18 45

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.  
BERGARA  
943 76 05 09

izeder

ARTE DEKORATIBOKO  
ikastaroak

943 76 71 05.  
Arruriaga 2. BERGARA



**Matxiategi  
Elektragintza  
S.L.**

ELEKTRIZITATE MATERIALEN  
SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA

Zurradero 8, behea. BERGARA. 943 76 19 94.



GUREN  
INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g  
Tel. eta faxa: 943 76 33 01

# AZPEITXI

*Jatetxea*

Aranerreka 13 behea. Bergara  
943 76 55 00



FUTBOLA

# Gorek irabazi zuen Ipintzako Txapelketa, Mongatxurrak taldeari 2-0 irabazita

Beteranoen txapelketan A Ze Flaxa taldea 4-3 nagusitu zitzaion Guipuzcoanari eguenean jokaturako finalean

EDU MENDIBIL

**Gore taldea dugu Ipintzako nagusien mailako txapelduna. Egubakoitzean jokaturako finalean 2-0 irabazi zion Mongatxurrak taldeari. Bestalde, bezperan, beteranoen mailako finalean A Ze Flaxa 4-3 zitzaion Guipuzcoana taldeari.**

Nagusien mailako finalean aurretik Ipintzan txapeldun izandako bi talde izan ziren aurrez aurre. Oraingo honetan Gorek jaso zuen txapeldunen trofeoa, Mongatxurrakekoei 2-0 nagusituta. Igor Larrañagak egin zituen partiduko bi golak. Gorek merezimendu osoz irabazi zuen finala.

Finalaren osteko sari banaketan finalistendako trofeoak izan ziren eta, horrez gain, hainbat jokalarik nabarmendu zituzten. Era berean, Mikel Fernández *Pope*-k sari berezia eskuratu zuen antolatzaileen eskutik, hainbat urtean txapelketa aurrera ateratzeko egindako lanagatik. José Luis Beitiak entregatu zion trofeoa *Pope*-ri. Hark ez zuen horrelakorik espero eta hunkitu egin zen, bildutako txaloen artean. José Luis Beitiak parte hartu

duten talde guztiei eta antolaketan ibilitakoei ere zorionak eman zizkien eta hurrengo urtean ere txapelketan izateko gonbidatu zituen. Aurten, ia 600 jokalaritari dira, hainbat mailatan, eta azken urteotako txapelketa arrakastatsuenetakoa izan da.

**A ZE FLAXA BETERANOETAN TXAPELDUN**  
Eguenean jokaturako beteranoen mailako finalean A Ze Flaxak 4-3 irabazi zion Guipuzcoana taldeari. Iaz ere bi talde horiek iritsi ziren finalera, eta, orduan bezala, A Ze Flaxa taldekoak nagusitu ziren.


Beteranoen txapelketan zortzi talde izan dira lehian. Urte batetik bestera hutsik egiten ez duten jokalariek ikusi ahal izan ditugu Ipintzan. Fernando Juaristi Eibarko eta Bergarako jokalaririk ohiak (Guipuzcoana) jaso zuen jokalaririk onenari zegokion saria. Atezain onena, berriz, Manu Díaz Bildurbarek Opel Lamekoa izan da eta golegile onena, berriz, Javi Ibarra (Guipuzcoana). Bestalde, Ezinleike taldeko Javier Olabarria izan da jokalaririk beteranoena. 50 urterekin oraindik ere sasoi betean dela erakutsi du Javier Olabarriak beste behin ere.



Gore eta A Ze Flaxa taldeetako jokalariek, egubakoitzean jasotako trofeoekin.




Oskar Teran eta Joseba Duran, Goreko jokalariek, Karlos Etxaniz Giautoko ordezkariak emandako sariarekin.



Mikel Elkorobarrutia (Gore) izan da txapelketako atezain onena.



Jon Alberdik jaso zuen txapeldunordeen trofeoa, Peña Athleticekoen eskutik.



A Ze Flaxa izan da talde beteranoena. Bittor Jiménezek hartu zuen saria.



Luis Garitano izan da txapelketako jokalaririk beteranoena, 42 urterekin.



Mikel Fernández *Pope*-rendako sari berezia izan zen.



Juan Luis Etxanizek golegile onenari BERRIGARAK emandako saria jaso zuen.

Hona hemen 2.Merkealdiak

Garibai Etorbidea 2-6 • ARRASATE

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA



The Sir Aligator's Company taldeak rock, pop eta soul estiloetako kantuak eskainiko ditu egubakoitzean.

Udako Gauak egitarauaren aurtengo azken musika emanaldia

## The Sir Aligator's Company egubakoitzean Espoloian

EDU MENDIBIL


Udako Gauak kultura egitarauaren barruan, The Sir Aligator's Company taldearen musika emanaldia izango da egubakoitzean, hilaren 26an, Espoloian, 22:30etik aurrera. Madrilen sortutako taldeak rock, pop edota soul estiloetako piezak eskainiko ditu.

Miguel Moreno (tuba), Simeón Galdulf (tronboia), Elies Hermandis (tronboia), Daniel Álvarez (bateria), Mario Torrijo (tuba), Stechene Loyer (tronboi baxua) eta Álvaro Martínez (tronboia) musikariek osatzen dute The Sir

Aligator's Company. 1995a ezkerro lan aipagarria egin dute musikaren eta hainbat instrumenturen zabalkundean, eta, esate baterako, haurrei zuzenduriko *Tuve tuba por un tubo* izeneko ipuin musikala estreinatu zuten Alacanteko Musika Garaikideko Nazioarteko XIV. Jaialdian. *Croco, un aligator en New York* operarekin ere arrakasta handia lortu zuten. Duela bost urte taldea Riva de Gardan (Italia) izandako Verso II Milenio tuben munduko kongresura joateko gonbidatu zuten. Sorreratik bertatik taldeak mundu zabalean erakutsi ditu tubaren eta tronboiaren sekretuak.

### ERREPERTORIO ZABALA

Zuzeneko emanaldietan, esan bezala, rock, pop eta soul estiloetara hurbiltzen dira The Sir Aligator's Companyko musikariak. Errepertorioko kantu guztiak Elies Hernandisek moldatutakoak dira. Besteak beste, Henry Mancini, Nino Bravo, Freddy Mercury, Michale Jackson, Elton John, Frank Sinatra, James Brown, Ennio Morricone edota Nino Rota ospetsuen abestiak egokitu dituzte. Egubakoitzean *Bohemian rhapsody* (Mercury), *My way* (Sinatra), *I feel good* (Brown) edota *Un beso y una flor* (Bravo) abesti ezagunen doinuekin etorriko zaizkigu Espoloira.



### Liburutegia astebete itxiko dute abuztuan

Udal Liburutegia itxita egongo da abuztuaren 12tik 18ra bitartean. Abuztuko gainerako egunetan zabalik egongo da aste barruan, 08:00etatik 13:30era. Oporren bueltan ohiko ordutegian zabalduko dute. Hortaz, irailaren 2tik aurrera, 09:00etatik 21:00etara egongo da zabalik.

Aurreko urteetan bezala, abuztuko oporrak direla-eta, *Biblioporrak* izeneko programa abian dago; adin askotariko irakurleendako azken nobedadeak gomendatzen dituzte programa horretan.

## Bost film eskainiko dituzte abuztuan San Martin plazan

E.M.

Hirugarren urtez jarraian, Bergarako Udalak *Zinea airea librean* izenburuko programa iragarri du abuzturako. Hain zuzen ere, eguenero, film emanaldi bat izango da San Martin plazan, 22:00etan.

Udaleko Kultura Zerbitzuaren eskutik, bost emanaldi izango dira abuztuan San Martin plazan. Esan bezala, emanaldiak eguenero izango dira, 22:00etan. Lehenbizi, *Harry Potter* filma eskainiko dute, abuztuaren 1ean, gaztelaniazko emanaldian; hurrengo astean, abuztuaren 8an,

gaztetxoei zuzenduriko *Adar-barkar* filmaren euskarazko emanaldia izango da; hilaren 15ean, berriz, berriki arrakasta handia izan duen *Ocean's eleven* filma ikusteko aukera egongo da, gaztelaraz; abuztuaren 22an *Charlie & Louise* filmaren txanda izango da, euskaraz hori ere, eta azkenik, abuztuaren 29an, *Parque jurásico III* filma eskainiko dute, gaztelaniazko bertsioan.

Kultura Zerbitzuko arduradunen arabera, harrera ona izan du *Zinea aire librean* izeneko programak eta aurreko urtean askotariko ikusleendako filmak ekartzen ahalegindu dira. Emanaldiak doakoak izango dira.



'Harry Potter' filma abuztuaren 1ean eskainiko dute, San Martin plazan.

## Marrazki erakusketa ikusgai egunotan Nahikari tabernan

E.M.

Uztailaren bukaera arte marrazki erakusketa ikusgai dago Masterrekako Nahikari tabernan. Garazi Olabarria, Iñaki Elkoro-barutia eta Ibon Pérez bergarar gazteren lanak zintzilikatu dituzte Nahikariko paretetan. Hirurak Marino Gonzálezek ikasleak ditugu eta euren lana jendaurrean erakustera animatu dira.

### HOGEI LAN

Guztira, 20 dira Nahikarinarri-tako marrazkiak. Estiloari dago kienez, lumatxo egindako lanak dira nagusi eta herriko tokiak zein kanpokoak islatu izan dituzte marrazkilariek. Nahikari tabernak kanpoko zein herriko artisten lanak plazaratzeko ahaleginean jarraitzen du. Marrazki erakusketa uztaile amaiera arte izango da ikusgai.



Marino Gonzálezek marrazki bateko xehetasuna.

**BONOFOTOA**



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Atari hauek alde zaharreko bi kaletan daude. Ze kale?

**GALDEDEBALDE**

**1.**

Zenbat bergarrek hartu dute parte bisita gidatuetan ekainean eta uztailean?

- A/ 314.
- B/ 229.
- C/ 527.

**2.**

Nola du izena udalak uztailean zehar antolatu duen kultura egitarua?

- A/ Hau beru!
- B/ Kofraixak.
- C/ Udako Gauak.

**3.**

Zein izan da jokalarik onena Ipintzako txapelketan, beteranoen mailan?

- A/ Fernando Juaristi.
- B/ Luis Garitano.
- C/ Bittor Jiménez.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**DOLORES IÑARRA**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela.

Zorionak, Dolores!

Galderen erantzun zuzenak; Bonofotoa: 1701 / Galde debalde: 1-C, 2-C, 3-B.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

**Carbonell oliba olio**

0,4°koa, litro bateko botila.

**2,69 €**

448 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Pradoko Museoa dagoen Cerezoren lan bat.

**SANTAMARINAKO ALTXORRAK**

**Cerezoren 'Kristo gurutziltzatua'**

EUSEBIO CORCUERA (ZAHARBERRITZAILEA)

**M**ateo Cerezoren *Kristo gurutziltzatua* Santa Marinako parrokiako artelan bikainenetakoa dugu. Cerezok (Burgos, 1635) Juan Carreño de Mirandaren estudioan ikasi zuen, Madrilan, eta garai hartako pintore onenetakoa dugu. Hainbat museotan ikus ditzakegu haren lanak.

Santa Marinaran dagoen irudikapena *Burgosko Kristo gurutziltzatua* edo *Arrautzetako Kristoa* izenekin ere da ezagun, Kristoaren oinetan arrautzak azaltzen direlako, hain zuzen. Bestalde, ohiko araztasun zapi motza eraman beharrean, Kristoak gonazpiko zuria darama, beheko aldean bordatu dotorearekin.

Cerezo horrelako irudikapenak egiten aitzindarietakoa izan genuen eta jarraitzaile ugari izan zituen. Kalitate handiko lana da Santa Marinakoa: margolana nahiko iluna da, hondoa beltza duelako eta Kristoa ere nahiko tenebrista delako. Argi puntuek Kristoaren anatomia eta, bereziki, zauriak dituen puntuak azpimarratzen dituzte. Markoa ere oso interesgarria da; margolana aberastu egiten duela esan genezake.

*Cerezo bere garaiko pintore bikainetakoa da, eta hainbat museotan daude haren lanak*

**Jose M. Martín**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 /  
666 517 295

**REMENTERIA**  
Altzariak

Egongelak  
Logelak  
Aukera guztiak  
Enkarguan

Artekalea, 6  
BERGARA  
943 76 13 29

**Kabutzia**

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tf. 943 76 56 62

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77

**SANTOS**



Etxetresna elektrikoak  
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA  
Tf. 943 76 26 10



BERGARA  
**Olaia Zalakain**  
Uztailaren 24an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Josu.



BERGARA  
**Aitor Rubio**  
Uztailaren 24an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Andrea.



BERGARA  
**Andoni Moñux**  
Uztailaren 31n 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Jon Barragan**  
Abuztuaren 5ean 5 urte.  
Zorionak! Ane, gurasoak  
eta aitona-amonak.



ELGETA  
**Markel Oianguren**  
Abuztuaren 5ean 8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Maitane Atutxa**  
Abuztuaren 23an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Mikel eta etxekoak.



BERGARA  
**Aitor Kortabarria**  
Abuztuaren 15ean 7 urte.  
Urte askotarako!  
Asier eta etxekoak.



BERGARA  
**Julen Arana**  
Uztailaren 24an 10 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Mireia.



BERGARA  
**Deiane Márquez**  
Abuztuaren 7an 3 urte.  
Zorionak! Gurasoak,  
Julen eta Mireia.



BERGARA  
**Miren Txurruka**  
Uztailaren 24an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Unai Txurruka**  
Uztailaren 27an urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Olatz Ruiz de Larramendi**  
Uztailaren 29an 2 urte.  
Zorionak! Iker eta familia.



BERGARA  
**Ianire Jiménez**  
Abuztuaren 31n 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Mikel Kortabarria**  
Uztailaren 24an 8 urte.  
Zorionak! Elisa, Gorka,  
Julen eta etxekoak.



BERGARA  
**Aritz Bikuña**  
Uztailaren 24an 30 urte.  
Zorionak! Ainhoa, Xabi,  
Mikel, Paulo eta Nerea.



BERGARA  
**Mikel Soto**  
Abuztuaren 11n 5 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA  
**Eneko Larrañaga**  
Uztailaren 26an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Alberto Sotil**  
Uztailaren 27an  
urtebetetzea. Zorionak!  
Auskalo nor...



BERGARA  
**Unai Alberdi**  
Abuztuaren 14an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak; batez ere, Irati.



BERGARA  
**Enaitz Agirre**  
Uztailaren 26an 21 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Ainhoa Osa**  
Irailaren 3an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Joseba Zengotita**  
Abuztuaren 6an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Anne eta etxekoak.



BERGARA  
**Garazi Zubizarreta**  
Uztailaren 31n 5 urte.  
Urte askotarako!  
Mikel eta etxekoak.



BERGARA  
**Idoia Agirrezabal**  
Uztailaren 30ean 2 urte.  
Zorionak! Nerea,  
etxekoak eta lagunak.



BERGARA  
**Luken Arriola**  
Abuztuaren 14an 2 urte.  
Zorionak! Izaskun,  
etxekoak eta lagunak.



ANTZUOLA  
**Ana Isabel Garitano**  
Uztailaren 25ean 33 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak.

## Adi!

Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia,  
Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia,  
astelehenetan 17:00etatik  
19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

**Silvestre Muñoz, s.l.**  
pinturak

610 25 99 82  
610 25 40 37  
943 76 24 11  
Amillaga 1, 10 pabilioia.  
20570 BERGARA

Pintura-lanak  
orokorrean  
•  
Pintura industrialia  
•  
Zoru arinak:  
sintasolak, moketak...

**JAUJA  
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95

**JOXAN  
ARRAINDEGIA**

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 24a / 123. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

**ANAJE NARBAIZA/ELAY-KO EUSKARA BATZORDEKO IDAZKARIA**

## “Langileen aldetik gogo eta borondate handia egon da euskara ikasi eta praktikan jartzeko”

AINZANE IRIZAR

**A**urten bete dira 10 urte Elayk euskara plangintza abian jarri zuela. Urteurren horrekin batera, Guk Zerbitzua eta Lana Euskaraz ziurtagiria eman dio Kontseiluak. Anaje Narbaizarekin berba egin dugu horren gainean.

**Kontseiluak eman dizuen ziurtagiri horrek zer esan nahi du?**

Zerbitzuari dagokionez, zerbitzu hori euskaraz emateko prest gaudela. Kanpora begirako harremanak, batez ere, hornitzaileekin dauzkagu; hornitzailea euskalduna baldin bada, harreman horiek euskaraz egiten ditugu. Lanari dagokionez, barruko ekoizpena euskaraz egiteko prest gaudela esan nahi du.

**Lana euskaraz egiteak, beraz, langile gehienak euskal hiztunak direla esan nahi du?**

Bai, langile gehienak gara euskal hiztunak, eta erabilera maila ere handia da. Hala ere, badaude euskaraz ez dakitenak eta dago-



ARTXIBOA

eneko ikasiko ez dutenak edade-tuak direlako. 280 langiletik hamahiru langile daude euskaraz ez dakitenak. Langile horiek guztiz errespetatzen ditugu. Dena

dela, enpresaren bilakaeran gero eta normaltasun handiagoarekin aurre egiten diogu euskarari; beraz, gero eta normalagoa da enpresan euskaraz egitea.

**Euskara plangintza abian jarri zenutela hamar urte bete dira aurten. Zela aldatu da ordutik zuen egoera?**

Orain dela hamar urte gazte-

leraz lan egiten genuen; orain, berriz, euskaraz. Oraindik ez dugu guztiz lortu euskaraz lan egitea, baina, nolabait, euskal hiztunok, ahal dugun neurrian, euskaraz lan egiten dugu. Dena dela, muga batzuk badauzkagu: euskararen egoerari dagokionez, ingurua eta gizartea aldatzen ez doazen bitartean, guk ere ezin dugu urrats gehiago eman. Hori xe da gakoa: gu prestatuta gaude euskaraz lan egiteko eta zerbitzua euskaraz eskaintzeko, baina gizarteko mugak hortxe daude. **Zelakoa izan da hamar urte hauetako prozesua?**

Langileen aldetik gogo eta borondate handia egon da; ordu asko sartu dituzte euskara ikasteko eta ikasitakoa praktikan jartzeko. Eta, bestetik, enpresaren beraren lana; diru mordera inbertitu du plangintza horretan eta plangintzari laguntza handia eman dio. Hasiara-hasieratik erakutsi zuen proiektuarekiko konfiantza enpresak. Gainera, aitzindari izan ginen horrelako plangintza bat abian jartzen; Elhuyarrekin lankidetzan jardun dugu proiektuan lanean.



### Trekutz, zikin-zikin eginda

Bizilagun batek eman zigun abisua, Trekutzeko zelaiak zikin-zikin eginda zeudela esanez. Plastikozko poltsak eta platerak, botila hutsak eta bestelako hainbat zikin-keria topatu genituen. Badi-rudi kanpaldia egin zuela han kanpoko gazte koadrila batek. Ez da, gainera, hori gertatzen den lehen aldia. Sortutako zikin-keria guztia poltsa baten hartu eta eramatea ere ez da, bada, askorik kostatzen! Egubakoitz arratsaldean herritar batek garbitu zuen inguru guztia. /A.I.

### LABUR

#### Tonbolako hainbat opari saridunen zain daude

Anelkarrek, jaietan jarritako tonbolan, txartel guztiak saldu zituen. 1.500 bat sari banatu zituen egubakoitzean eta zapatuan. Sari potoloenak, baina, azkeneko egunean zozkatu zituzten. Hona hemen zenbaki saridunak: 8.069 (bizikleta), 11.742 (hozkailla), 10.000 (kanpadenda), 9.116 (eskuko erlojua) eta 12.304 (erlojua). Era berean, hainbat sari sorta ere zozketatu zituzten; hona hemen zenbakiak: 12.075, 8.084, 8.465, 9.994 eta 5.697, hain zuzen ere.

# Ekitaldi berriak izan dira nagusi jaietan

Zeruari begira geunden antzuolarrok jaiak hasi aurretik; baina tanta batzuk egin dituen arren, eguraldia lagun izan dugula esan genezake.

Mairuaren Alardean ere bazirudien euria egingo zigula, baina azkenean, ateri egin zuen zapatu arratsaldean.

**BERRITASUNEK ARRAKASTA IZAN DUTE** Hainbat berritasun izan ditugu aurtengo jaietan: alde batetik, Anelkar taldeak tonbola jarri du plazan, eta izugarritzko arrakasta izan du; hango txartel, opari eta jende ilarak!

Gazte Asanbladak antolatutako Herrien Arteko Kirol Txapelketak ere ez zuen arrakasta txi-

*Tanta batzuk egin dituen arren, eguraldia lagun izan dugula esan genezake*

kiagoa izan; Zurrategi plaza bete egin zen zapatu arratsaldean herri kirol lehiaketa ikustera batutako jendearekin. Antzuolarrez gainera, Etxarri-Aranaztik, Aiheratik eta Osintxutik etorritako lagun koadrilek giro ezin hobea jarri zuten.

Gisatu Txapelketa ere antolatu du Udalak, lehenengo aldiz.

Herriko bost elkartek parte hartu zuten egubakoitz arratsaldean Gisatu Txapelketa horretan, eta jende ugari hurbildu zen gisatuen itxura gertutik ikustera.

Badirudi, hortaz, jendeak eskertzen dituela antolatzen dituzten ekitaldi berriak.

ARGAZKIAK: AINTZANE IRIZAR  
ETA NEREA MAKAZAGA



Gerizpe bila ibili ziren egueneko herri bazkarian parte hartu zuten neska-mutikoak.



Zinegotzien eta dantzarien dantza saioarekin hasi ziren jaiak.



Izugarritzko arrakasta izan zuen Anelkarren tonbolak, eta sari guztiak banatu zituzten.



Eguraldiak ere lagundu zuen, eta iaz baino jende gehiago batu zen Mairuaren Alardea ikusteko.

DEKORAZIOA  
**ABAD**  
PINTURAK  
ANTZUOLA  
PAPER PINTATUAK

Jose  
Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B.  
Antzuola  
943 76 60 19  
943 76 60 43  
Faxa:  
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

**HARIZKI**

**MUEBLES  
IGEA**

Sukalderako eta  
bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak


Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80



**ETXARRIARRAK NAGUSI** Aiherrako, Osintxuko, Etxarri-Aranazko eta Antzuolako taldeak aritu ziren norgehiagoka zapatu arratsaldean. Arrakasta itzela izan zuen Gazte Asanbladak antolatutako Herri Kirol Txapelketak, eta giro ona izan zen nagusi; Zurragi lepo bete zen. Azkenean, etxarriarrak nagusitu ziren; osintxuarrak eta antzuolarrak bigarren geratu ziren, puntu bereberekin, eta Aiherrakoak azkeneko tokian.



**GISATU TXAPELKETA** Herriko bost elkarte parte hartu zuten egubakoitz arratsaldean plazan jokatu zen Gisatu Txapelketan. Trekutz elkarteko Gregorio Madariagak eta Ildefonso Garciak jantzi zuten txapela. Epaimahaia ez zen nolana hikoia izan: Juanita Urbistondo, Mari Kruz Lezeta eta Angeles Arin sukaldariak osatu zuten. Haien esanetan, ez zuten lan erraza izan, maila bikaina erakutsi zuten eta sukaldariak.



lzerdi ederrak bota zituzten umek jolasparkean; egubakoitzean, egun osoan.



Urteroko ohiturari jarraituz, jendeak ez zion hutsik egin domekako herri bazkariari.



Domeka arratsaldeari erritmo bizia jarri zion Jata Malanga perkusio taldeak.

**Z** *Zabalo Iturgintza S.L.*

Bidea eginez

Tallerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78  
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

**MUJIKA  
HARATEGIA**



**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

**LEKY-BERRI  
MERENDEROA**

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko uztailaren 24a / 107. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Goimendin gaur hasiko dira Santixau jaiak

OXEL EROSTARBE

Auzoetako jaiak aste honetan bertan hasiko dira; izan ere, gaur bertan ekingo diete jaiak Goimendi auzoan. Egun handia, hala ere, bihar izango da: auzotarrek antolatuta, egun osoan ekitaldi ugari izango dira. Hortaz, egun-pasa polita egiteko aukera.

Elgeta eta Eibar arteko bidean dagoen Goimendi auzoan jaiak ospatuko dituzte gaur eta bihar bitartean. Urtero moduan, triki-filariak eta herri kirolak ez dira falta izango.

Gaur, egubakoitza, emango diete hasiera jaiak: 21:30ean, auzoko plazan berakatz zopa banatuko dute; eta 22:30etik aurrera, Erromeria izango da, Laja eta Izer soinu jotzaileekin.

Bihar, zapatua, Santixau Eguna izango da: 11:00etan, meza egingo dute auzoko basilizan; 12:00etatik aurrera, herri kirolak izango dira. Elorriaga eta Barberena aizkolariek emango diete hasiera herri kirolei. Mintxeta eta Egi ere hantxe izango dira; herri kirolak amaitzean, Joxe Agirrerren eta J.M. Irazuren ber-



Gaur bertan hasiko dira Santixauak Goimendi auzoan.

tsoak entzuteko aukera izango da; horren ondoren, Jon Ostolazaren eta Rakel Pujanaren doinuek alaituko dituzte jaiak; 17:30ean, dantza suelto erakustaldia egin-

go dute; 18:30ean, bolo jokoa izango da; eta iluntzetik gauerdira bitartean, azkenik, Jon Ostolazarekin eta Rakel Pujanarekin dantzaldia izango da.

JAIXAK

## Abuztuaren 6an, Salbadorko jaiak

O.E.

Aurtengoan ere egitarau zabala osatu dute Salbadorko auzokoei. Abuztuaren 6an, 09:00etan, arbolak igoko dute Salbadorko; 12:00etan, meza izango da bertako basilizan; eta horren ondoren, salda eta txorizoa banatuko dute. Egun osoan hango bolatokia zabalik egongo da. Aurten, lehenengo aldiz, herri txikiteoa antolatu

dute eguerdi parterako. Gardoki soinu jotzaileak alaituko du herri txikiteoa.

Arratsaldean, 17:00etan, txirrindu lasterketa izango da; horren ondoren, jolasak izango dira umeendako; eta 18:00etan, Bolo Txapelketa jokatu dute.

Gauean, 21:30ean, afaria izango da. Afalostean, Gardokik alaitutako dantzaldia izango da, goizaldera arte.



Aurten ere giro aparta egongo da Salbadorko jaietan.



## Amaitu da Uda Kanpaina

Urtero moduan, partaidetza haundixa euki dau Uda Kanpaina. Guztira, 70 neska-mutikok hartu dabe parte. Multikirolan izena emondakuek kirol barrixen nundik norakuak ikasi ditue: beisbolian, zesta puntan, patinajian, Txiriki Jolasian eta holakuetan jardun dabe.

Udaleko Kirol teknikarixak esan doskunez, baloraziño positibua egin bihar da, urteroko ekintzak aurrera urten diran arren, partaidetza bestetan baiño haundi-xagua izan dalako./O.E.

LABUR

## Zenbaki bakoitia duten Salbadorko etxebizitzetako fatxadak berritzeko aukera

Udalaren deiarri erantzunez, Salbadorko kaleko zenbait bizilagunek interesa azaldu dute etxebizitzetako fatxadak konpontzeko. Udala ikerketa bat egiten ari da, zenbaki bakoitia duten etxebizitzetako fatxadak zelan dauden jakiteko. Aurrerantzean egin behar diren konponketak egiterakoan jarraitu beharko diren oinarriak finkatzea da asmoa. Hala, zein material eta margo erabili beharko diren edo igogailua nondik joan beharko den zehaztuko dute.

## Uztailaren 22tik abuztuaren 31ra arte ez da Elgeta eta Eibar arteko autobusik egongo

Oporrak direla-eta, uztailaren 22a eta abuztuaren 31 artean ez da Eibar eta Elgeta arteko autobusik egongo.

Udaleko zerbitzuei dagokienez, liburutegia eta kiroldegia itxita egongo dira abuztuaren 5era arte Udaletxeko jarduerak berdintzen jarraituko du.

Bestalde, medikuaren kontsultak ez du zerbitzurik etengo.



ELKARRIZKETA

KOLDO EROSTARBE/GERNIKAKO JOKALARIXA

*“Bigarren B maillan jokatzeko jarraitzea aukera onena da neretzat”*

O.E.

**D**atorren denboraldixan Gernikan jokatu da Koldo Erostarbek. 21 urteko elgetarrandako hau denboraldiau bigarrena izango da 2. B maillan. Aurreko astian ekin zotsan Gernikako ibilbi-diari Koldok.

**Iazko denboraldixan Eibar B taldian egon zian; azkenian, ezin maillari eutsi.**

Talde gogorra tokau jakun. Ligako lehenengo zatixan emaitza onak lortu giñuzen arren, bigarren zatixan ez giñan horren ondo ibilli. Ezin izan gontzan maillari eutsi, pena haundixa izan zan.

**Lehenengo urtia izateko partidu dexente jokatu ziñuzen. Ze moduz moldau ziñan mailla barrira?**

Bigarren B mailla gogorra da, gure taldian izen haundiko klubak zeren: Barca B, Lleida, Logroñes eta Zaragoza B taldien aurka jokatu giñuan, adibidez. Lehen urtia zan arren, maillari nahiko ondo moldau nintzala esango neuke. Eta dexente jokatu neban. **Eibarrekin urtebeteko kontratua daukazu arren, Gernikan jokatu dozu datorren denboraldixan.**

Bai, danondako aukera onena izan da. Bi klubak ados jarri dira neu hara lagata juateko. Neretako be 3. maillan jokatzia baiño hobia da 2. B maillan jokatzia.


**Entrenatzen be hasi zarie. Ze moduz talde barrixan?**

Ondo. Talde gaztia daukagu arren, gauza politak egiten saiatuko gara. Maillari eustia da gure lehenengo helburua, eta hortik aurrera datorrenari, ondo etorri!

**Taldian lekutxo bat egittia be garrantzitsua izango da?**

Danon helburua da jokatzia eta beti izaten da zailla postuakin egittia. Neu jokatzeko eta disfrutatzen ahaleginduko naiz. **Bigarren B maillan egonda, gertu ala urrin ikusten da gora salto egittia?**

Bigarren B maillatik gertuago ikusten dan arren, zailla da gorago egittia. Suerte haundixa euki bihar dala esango neuke.



O.E.



**Arineketanek irabazi zuen**

Zapatuan, hilaren 20an, Aretu Futbol Txapelketako finala jokatu zuten Arineketanek eta Txapelak. Lehenengo zatian Txapela 4-1 aurreratu zen, baina bigarren zatian arrasatearrek erreakzionatu egin zuten eta irabazi egin zuten: 8-5. Golegileei dagokienez, Haritz Gallastegi izan da gol gehien egin dituen jokalaria./O.E.



**Iñigo Urretxua izan zen azkarrena**

Domekan, hilaren 21ean, XVIII. Euskadiko Mendiko Txirrindularitza lasterketa jokatu zen. Guztira, 54 txirrindularik amaitu zuten lasterketa. Elgetako helmugara heltzen aurrena Olarra-Consultec taldeko Iñigo Urretxua izan zen. Xabier Aranguren elgetarrak 30. postuan amaitu zuen lasterketa. Jende ugari batu zen Elgetako helmugan lasterketa ikusteko./O.E.

**LABUR**

**Jone Muxika, 15. Espainiako Txapelketan**

Zapatuan, Leongo San Isidro herrian izan zen Espainiako Txapelketan 15. postuan amaitu zuen Jone Muxikak. Lortutako emaitzarekin oso gustura dago elgetarra.

**Mikel Elkoro eta Inaxio Gallastegi pala txapelkun**

Debagoieneko Pala Txapelketako finala jokatu zen zapatu goizean Elgetako frontoian. Mikel Elkoro eta Inaxio Gallastegi elgetarrek Jaime Acedo eta Xabier Aranburu bergararrak izan zituzten aurkari. Lau pilotariek maila bikaina erakutsi zuten finalan. Azkenean, elgetarrek irabazi zuten: 35-13.

**SAIOA ARANZABAL MASAJEAK**

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

**JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**BOLATOKI**  
taberna·jatetxea



- Asteazken zehar eguneko menua
- Asteburuetan menu bereziak eta sagardotegiko menua
- Pintxoak, ogitartekoak eta errazioak

Artetale 2, Elgeta. 943 76 82 84

## ERRETRATUZAHARRA

## Pertxako gaztetxo futbol taldea, 1982

**I**pintzako Futbol Txapelketa amaitu dela-eta, garai baten Seminarioan izaten zen txapelketako argazki bat dakarzkizuegu oraingo astean. Argazkiko mutilek Pertxa taldea osatzen zuten eta alebin mailan aritzen ziren orduan. Erretratu 1982. urteko udaberrian ateratakoa da eta mutilek 13 urte izango zituzten orduan. Lagun-koadrilek Pazkoetan erabiltzen zuten brusa futboleko jokatzeko ere jantzen zuten, txapelketako finalak jaietan izaten ziren-eta.

Hara hor zeintzuk diren argazkikoak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Jon Zabala, Kepa Egaña, Jagoba Larrañaga, Ibon Odriozola, Iker Beistegi, Andoni Sagastume, Mikel Lazkano, Xabier Arregi eta Manu Díaz.

Makurtuta: Asier Altuna *Kixi*, Iker Muruamendiaraz, Aitor Salaberria, Josu Arana, Xabier Garamendi, Aitor Bolinaga eta Markel Goenaga.

Argazkia: Pedro José Eguren



### ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatorz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

### Bergarako Epaitegiko fatxada

**E**paitegia, kartzela eta Udal Eskola biltzen zituen eraikina 1860ko hamarkadan eraikitzen hasi ziren. XIX. mendean, Justizia Administrazioa berrantolatu zen eta partidu judizialak sortu ziren, Bergarako Gipuzkoako buruetako bat zen. Canovas del Castillo hil zuen Angiolillo anarkista 1897ko abuztuaren 15ean exekutatu zuten herriko kartzelan.



8 Juzgado y Carceres de VERGARA

≈ 1915

Ariznoa plaza San Pedro plaza genuen XIX. mendean. XX. mendearen hasierako argazki honetan gurdiak ikus daitezke.



2002

Carlos Uriarte arkitektoak egin zuen eraikineren proiektua. Goiko aldeko Doña Justa eskultura Martzial Agirre bergararrarena da.



**Zumelaga**  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!


San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi  
BERGARA

**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



## Bitartean, GOITB.

Uztailean, programazio berezia.

### **ASTELEHENETAN**

- 20:30: Goienasport

### **MARTITZENETAN**

- 20:30: Xeleberri jaietan

### **EGUÁZTENETAN**

- 20:30: Programa berezia

### **EGUENETAN**


- 20:30: Iparrorratza

### **EGUBAKOITZETAN**

- 20:30: Musika kontzertuak

### **Egunero**

- 14:00 / 20:00 / 21:30: Berriak



Alga perfumeria  
Amaia perfumeria  
Galarreta oinetakoak  
Gracian mertzeria  
Igarza mertzeria

**BEHERAPENAK**